


## FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, gure produktu edo ondasuna ekoizteko ezinbestekoak diren ekintzak dira, eta horien artean daude, beharrezko baliabideak eskuratzea, elkartek sortzea, gailua eguneratzea, kalitatea egokia dela ziurtatzea... Hala ere, ekintza guztiek ez dute garrantzi edo lehentasun behera. Hau dela eta, ekintzak lehentasunaren arabera aipatuko ditugu.



Hasteko, Enpresa aurrera eramateko gutxienezko dirua elkartuta dugunean, enpresa desberdinekin harremanetan jarri behar gara, produktuaren ekoizpen baliabideak eta banaketarako modu bat eskuratzeko. Jarduera honetaz arduratuko den taldekidea Telmo izango da.

Baliabide horiek erabiliz produktua ekoizteaz arduratuko den taldekidea Amets izango da. Horrez gain, hizkuntza baten batek aldaketak baditu gailua eguneratzeaz eta itzulpenari ahotsa emango dion inteligentzia artifiziala gailuari txertatzeaz arduratuko da. Atal ugari dituen eta bezeroen behar desberdinak asetu ahal dituen web gune bat sortuko du ere.



Jarraian eta behin ondasuna produzitu dugula, honen kalitate kontrol bat egitea ezinbestekoa den ekintza bat dela uste dugu, izan ere, gailuaren funtzionamendua eta prestakuntzak ahalik eta hoberenak direla ziurtatzeak, merkatuko beste produktuekiko desberdindu gaitzake. Aldi berean, bezeroek gure produktuarengan duten interesa galtzea ekidin dezake. Kalitate kontrolak Iker taldekideak egingo ditu justu fabrikatu hondoren, honela arazoren bat aurkitzen badu materiala berrerabiltzeko aukera izango dugu.

Garbi dago edozer gauza baino lehen proiektuari hasiera emateko beharrezko dirua elkartu behar dugula, horretarako, mailegu bat eskatzeaz gain bakoitzak diru kopuru bat eskuratu behar izango du. Markel arduratuko da diru kopuru horiek kudeatzeaz eta beranduago edukiko ditugun diru sarrera eta irteerak kontrolatzeaz, hau da, enpresaren ekonomiaren kudeaketaz.



Aurretik aipatutako web gune horren atal bat bezeroentzako laguntzara zuzenduta dago, eta hura izango da Iker taldekidearen ardura. Bertan, bezeroek hainbat baliabide izango dituzte Ikerrekin harremanetan jartzeko eta gailuarekiko dituzten zalantza edo arazoak aipatzeko. Iker, arazo horiek ahalik eta modu hoberen eta atseginean konpontzen saiatuko da.

